

Danbolin Musika eta Dantza Eskola / 2025-26 ikasturtea

ARAUAK

1. araua: NOR MATRIKULATU DAITEKE

4 urtetik aurrerako edozein matrikulatu daiteke Danbolin Musika eta Dantza Eskolan.

2. araua: MATRIKULATZEKO DOKUMENTAZIOA

Ordaindu beharreko kuota guztiak ordainduta izatea.

Ikasle bat ondo matrikulatuta gelditzeko, matrikula-orria eta argazki-baimena ondo beteta eta sinatuta aurkeztu behar ditu epearen barruan.

3. araua: MATRIKULATZEKO ARAUAK

3.1.) Matrikulatzeko epeak ekainean eta irailean irekiko dira.

Matrikulazioko lehen bi egunetan, 2. eguneko 19:00ak arte, ikasle ofizialek soilik egin dezakete ikasturte berrirako matrikula.

Hirugarren egunetik aurrera, ikasle ofizialek eta berriek egin dezakete matrikula.

3.2.) Egunero, 14:00etan aztertuko dira e-mailez jasotzen diren matrikulak; baina, daturen bat edo sinadura falta bada, matrikula ez da onartuko eta ikasleari jakinaraziko zaio. Matrikulazioaren lehenengo egunean jasotzen diren matrikulak ere 14:00etan aztertuko dira eta matrikulatzeko epea baino lehen jaso direnak haien ondoren aztertuko dira.

3.3.) Epez kanpora ez dago matrikula egiterik.

3.4.) Instrumentuko ikasle ofizialak, instrumentu batean edo 2. instrumentuan matrikulatu nahi badu edo instrumentua aldatu nahi badu, ikasle berria bihurtzen da hiru aukera horietako ikasgai; beraz, hirugarren egunetik aurrera egin behar du ikasgai horren matrikula.

3.5.) Musika eta mugimendua 1.3. kurtsoa bukatu duten ikasle ofizialek, instrumentuan matrikulatzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Matrikulazioko lehen bi egunetan matrikula egiteko lehentasuna eduki nahi badute, instrumentuaren erreserba egiteko dokumentua entregatuko dute ekaineko kontzertu pedagogikoan edo matrikulazioko lehen bi egunetan.
- Matrikulazioko bigarren egunean, 19:00etan, instrumentuaren erreserba-orriak aztertuko dira eta banaketak erabakiko dira:

- Instrumentuen banaketan arazorik ez badago, ikasleari jakinaraziko zaio matrikula egiteko hurrengo bi egunetan gordeko zaiola plaza. Bi egun hauetan matrikulatzen ez bada, plaza erreserba galduko du.
- Instrumentuen banaketan arazoren bat badago, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - Gainditutako musika eta mugimenduko ikasturte-kopurua.
 - Orion erroldaturik dauden ikasleek lehentasuna izango dute.
 - Baldintza berdinetan dauden ikasleen kopurua plaza-kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da. Zozketan, instrumentua tokatu ez zaion ikasleak erreserba-orrian jarritako hurrengo instrumentua aukeratuko du.

3.6.) Matrikula guztiak nominatiboak dira. Ikasturtea hasi ondoren, ikasleari ez zaio baja emango (klasera etorri ala ez) eta ikasturte osoa ordainduko du.

4. araua: MATRIKULA-TASEN ORDAINKETAK

Matrikula-tasen ordainketak ikasleak matrikula-orrian jarritako kontu korrontetik egingo dira. Ordainketa egiteko bi aukera daude:

4.1.) Matrikularen tasa osoa: Irailean.

4.2.) Matrikularen tasa hilero: Irailetik ekainera, hamar hilabetetan.

Ikasle batek ikasturtea hasi ondoren baja ematen badu, ez zaio matrikularen dirua itzuliko eta matrikula-tasa osoa kobratuko zaio.

5. araua: MATRIKULA-TASEN MURRIZKETAK

Unitate familiarren diru-sarreraren arabera eskatu daiteke tasa murriztea.

Matrikula-tasen murrizketa eskatu nahi duenak irailaren 27a baino lehen eskatu behar du, eskaera-orria ondo beteta eta eskatzen diren dokumentuak ekarrita.

Epez kanpora ez da eskaerarik onartuko.

Matrikula-tasa murriztea onartzen zaion ikasleak ondo gainditu beharko du ikasturtea. Horrela ez bada, eta hurrengo ikasturtean berriro ere murrizketa eskatzen badu, ez zaio emango.

6. aukera: IKASGAI OSAGARRIETAKO IKASLE-KOPURUA

6.1.) MUSIKA ETA MUGIMENDUA

6.1.A.) Musika eta mugimendua 1.1., 1.2. eta 1.3.:

Talde horietan 6 ikasle egongo dira gutxienez eta 16 gehienez. Ikasle gehiago matrikulatzen badira, bi taldetan banatuko dira. Bigarren taldearen ordutegia aurreikusita ez badago, gurasoekin bilera bat egingo da, ordutegiez informatu eta ikasleak bi taldetan banatzeko. Banaketa egiteko adostasunik ez badago, 16 ikasleko talde bakarra aterako da eta matrikulazio-ordena erabiliko da irizpide gisa.

Talde horietan izena ematen duten ikasle berriek, ikasturtea hasi ondoren, bi aste dituzte probatzeko. Arazoren bat sortuz gero, irailaren 24a baino lehen eman dezakete baja; hau da, lehen ordainagiria pasatu baino lehen.

6.1.B.) Musika eta mugimendua 1.4.:

Talde horietan 4 ikasle egongo dira gutxienez eta 8 gehienez.

6.2.) MUSIKA-MINTZAIRA ETA DANTZA

Dantzan izena ematen duten ikasle berriek, ikasturtea hasi ondoren, astebete izango dute probatzeko. Arazoren bat sortuz gero, irailaren 18a baino lehen eman dezakete baja.

6.2.A.) Taldeetako gutxienezko ikasle-kopurua:

Musika-mintzaira eta dantzako taldeetan 8 ikasle egongo dira gutxienez. Ordubeteko saioa izango dute, astean bitan. Ikasle-kopurua ez bada 8ra iristen, saio bakoitzeko denbora murriztuko da ikasle-kopuruaren arabera:

- 8 ikasle edo gehiago: astean bitan, ordubeteko saioak.
- 6 – 7 ikasle: astean bitan, 45 minutuko saioak (matrikula-tasa berdinarekin).
- 4 – 5 ikasle: astean behin, 60 minutuko saioa (matrikula-tasa berdinarekin).
- 4 ikasle baino gutxiagoko talderik ez da onartuko.

6.2.B.) Taldeetako gehienezko ikasle-kopurua:

Musika-mintzaira eta dantzako taldeetan, 16 ikasle izango dira gehienez. Ikasle gehiago matrikulatzen badira, bi taldetan banatuko dira. Bigarren taldearen ordutegia aurreikusita ez badago, gurasoekin bilera bat egingo da, ordutegiez informatu eta ikasleak bi taldetan banatzeko. Banaketa egiteko adostasunik ez badago, 16 ikasleko talde bakarra aterako da eta matrikulazio-ordena erabiliko da irizpide gisa.

6.2.D.) Kurtso berdineko bi talde daudenean:

Kurtso berdineko bi talde daudenean, hauek izango dira ikasle ofizialak talde batean edo bestean sartzeko irizpideak:

- Ikasleak musika-eskolan ez badu jarraitu nahi, jakinarazi egin behar du.
- Bi talde aurreikusten diren kurtsoetako ikasleei ohar bat bidaliko zaie maiatzaren bukaeran, ordutegi posibleak adieraziz.

- Oharrari erantzunez, ikasleak aukeraketa egin behar du eta epe bat izango du bere aukeraketaren berri emateko musika-eskolan. Ikasleak ez badu aukeratzen, zuzendaritzak erabakiko du zein taldetan sartu.
- Ikasleek egiten duten aukeraketaren arabera, taldeak konpentsatuta edo konpentsatu gabe atera daitezke; beraz:
 - Taldeak konpentsatuta ateratzen badira, horrela utziko dira.
 - Taldeak deskompentsatuta ateratzen badira:
 - Gurasoekin bilera egingo da eta taldeak konpentsatuko dira. Ikasle baten gurasoak ez badira bilerara etortzen eta ez badute justifikatzen edo abisatzen bilera baino lehen, ikasle hori erabiliko da taldea konpentsatzeko.
 - Bilera horretan, taldeak konpentsatzeko proposamen berriak egin ahal izango dira. Proposamen horiek zuzendaritzaren oniritzia eduki behar dute, irizpide pedagogikoetan oinarrituta.
 - Taldeak konpentsatzeko adostasunik ez badago, zozketa egingo da ikaslearen espediente-zenbakia kontuan hartuta. Espediente-zenbakia matrikula-orrian azaltzen den ikaslearen zenbakia da.
 - Zozketaren arabera osatuko dira taldeak, ahal den neurrian ikasleak egindako aukeraketa errespetatuz.
- Behin-behineko talde-zerrendak musika-eskolan jarriko dira ikusgai, ekainaren bigarren astean.
- Behin-behineko talde-zerrendatik norbaitek taldez aldatu nahi badu, ikasleak berak adostu beharko du aldaketa egitea beste taldeko ikasle batekin eta, ondoren, musika-eskolan jakinaraziko du aste bateko epearen barruan.
- Behin betiko talde-zerrendak musika-eskolan jarriko dira ikusgai, matrikulazioa hasi baino bi egun lehenago. Matrikulazioaren epe barruan, ikasleek matrikula egin beharko dute beti bezala, onartuak izateko.
- Taldearen aukeraketa egin duen ikasleak ez badu matrikula egiten matrikulazioko lehen bi egunetan, ez zaio plaza gordeko.

7. araua: INSTRUMENTUKO TALDEAK

Musika-eskolako instrumentuko talde batean parte hartu nahi duen ikasleak doan izango du baldin eta beste gairen batean matrikulatua badago. Matrikulatua ez dagoen ikasleak ikasturteari dagokion matrikula ordaindu beharko du.

8. araua: INSTRUMENTUKO KLASeko ORDUTegIA

Instrumentuko klaseko ordua, ikasturte bakoitzeko egutegian adierazten den egunean jarriko da eta irizpide hauek jarraituko dira:

- Ordutegiak jarriko diren egunean, goizeko 12:00etan, ikasle guztien matrikula ordenaren zenbakiekin zozketa egingo da.
- Instrumentu bakoitzeko irakasleak bere ikasleekin egingo du bilera ordutegiak jartzeko. Zozketan atera den matrikula-ordenaren zenbakitik jarraituko da ordena, ordutegiak aukeratzeko:
 - 18:00etan: 1.4., 2.1., 2.2., 2.3., 2.4., 2.B.J.1., 2.B.J.2. kurtsoak.
 - 19:00etan: 3.1., 3.2., 3.3., 3.4., 3.5., 3.6., 2.B., 3.B. kurtsoak.
- Ikasle bat bilerara ez bada etorri eta lehenago ez badu abisatu, txanda pasatuko zaio eta bilera bukatu ondoren deituko zaio, haren ordutegia adosteko.
- Ikasle batek bilera horretara ezin badu etorri eta bilera baino lehen irakasleari abisatu badio, bileran txanda tokatzen zaionean, telefonoz behin bakarrik deituko zaio, haren ordutegia adosteko.

9. araua: ASISTENTZIA

Maila bakoitza gainditzeko, gutxieneko asistentzia % 90ekoa izan behar du.

Ikasteko gogo gutxi eta falta asko egiten duen ikasleak ez du izango eskubiderik hurrengo urterako tokirik gordetzeko, eta ez da, beraz, ikasle ofizial izango.

10. araua: INSTRUMENTUAREN ALOKAIrUA

Instrumentuko ikasleak ez dauka instrumentua erosi beharrik, gomendagarria bada ere: musika-eskolako bat alokatu dezake. Hori bai, lehentasuna lehenengo kurtsoko ikasleek izango dute.

11. araua: GURASOEN ARDURA

Klasea bukatu eta ikaslea musika-eskolako gelatik irten ondoren, gurasoen ardura izango da.

12. araua.

Zuzendaritzari dagokio araudi honetan jasota ez dauden kontuei buruz erabakitzea.

NORMAS

1. Norma: QUIÉN PUEDE MATRICULARSE

En la Escuela de Música y Danza Danbolin se puede matricular toda persona de 4 años en adelante.

2. Norma: DOCUMENTACIÓN PARA MATRICULARSE

En la escuela de música hay que tener todas las cuotas pagadas.

Para que un/a alumno/a esté correctamente matriculado/a, deberá traer o enviar en plazo la hoja de matrícula y el permiso de fotografía debidamente cumplimentados y firmados.

3. Norma: PLAZO DE MATRICULACIÓN

3.1.) Los plazos de matriculación se abrirán en los meses de junio y septiembre.

Durante los dos primeros días de matriculación, sólo los alumnos oficiales podrán matricularse para el nuevo curso, hasta las 19:00 del 2º día.

A partir del tercer día, podrán matricularse los alumnos oficiales y nuevos.

3.2.) Cada día, las matrículas recibidas por e-mail, se examinarán a las 14:00 horas, pero si faltara algún dato o firma no se admitirá la matrícula y se comunicará al alumno. Las matrículas recibidas el primer día de la matriculación, se examinarán también a las 14:00 horas, y las recibidas antes del plazo de matriculación, se examinarán a continuación.

3.3.) Fuera de plazo, no se podrá formalizar la matrícula.

3.4.) El alumno oficial de instrumento que desee matricularse de un instrumento o de un 2. instrumento, o cambiar de instrumento, se convierte en nuevo alumno en la asignatura de estas tres opciones, por lo que deberá matricularse de esta materia a partir del tercer día.

3.5.) Para la matriculación en el instrumento, del alumnado oficial que haya finalizado el curso 1.3. de música y movimiento, se tendrán en cuenta las siguientes condiciones:

- Si quieren tener preferencia para matricularse los dos primeros días de la matriculación, entregarán el documento para hacer la reserva del instrumento, en el concierto pedagógico que se hará en junio o los dos primeros días de matriculación.
- El segundo día de matriculación, a las 19:00 horas, se examinarán las hojas de reserva del instrumento y se decidirán las distribuciones:

- En el caso de que no haya problemas en la distribución de los instrumentos, se comunicará al alumno/a que se le reservará la plaza, dentro de los dos días siguientes a la matriculación. Si no se matricula en estos dos días perderá la reserva de plaza.
- En el caso de que haya problemas en la distribución de los instrumentos, se tendrán en cuenta las siguientes condiciones:
 - Número de cursos aprobados de música y movimiento.
 - Tendrán prioridad los alumnos empadronados en Orio.
 - En el caso de que el número de alumnos/as, en las mismas condiciones sea superior al número de plazas, se realizará un sorteo. En el sorteo, el alumno al que no haya tocado el instrumento, elegirá el siguiente instrumento colocado en la hoja de reserva.

3.6.) Todas las matrículas son nominativas. Una vez iniciado el curso, no se dará de baja al alumno (aunque se presente o no) y abonará todo el curso.

4. Norma: PAGO DE TASAS DE MATRÍCULA

El pago de las tasas de matrícula se realizará a través de la cuenta corriente del alumno consignada en la hoja de matrícula. Existen dos posibilidades:

4.1.) Tasa total de matrícula: Septiembre.

4.2.) Tasa de matrícula mensual: Septiembre a junio, durante diez meses.

Si un alumno se da de baja una vez iniciado el curso, no se le devolverá el importe de la matrícula y se le cobrará la tasa de matrícula completa.

5. Norma: REDUCCIÓN DE TASAS DE MATRÍCULA

Se puede solicitar en función de los ingresos de la unidad familiar.

El solicitante deberá solicitar la reducción de las tasas de matrícula antes del 27 de septiembre, debiendo cumplimentar correctamente la solicitud y aportar la documentación requerida.

No se admitirán solicitudes fuera de plazo.

El alumno al que se le conceda la reducción de matrícula deberá superar el curso. De no ser así, y si en el curso siguiente volviera a solicitar la reducción, no se le dará.

6. Norma: NÚMERO DE ALUMNOS DE ASIGNATURAS COMPLEMENTARIAS

6.1.) Música y movimiento:

6.1.A) Música y movimiento 1.1., 1.2. y 1.3.:

En un grupo habrá un mínimo de 6 alumnos y un máximo de 16. En el caso de que no esté previsto el horario del segundo grupo, se realizará una reunión con los padres para informar de los horarios y repartir a los alumnos en dos grupos. En el caso de que no haya acuerdo para la distribución, se sacará un único grupo de 16 alumnos y se seguirá el orden de matriculación.

En 1. nivel, en música y movimiento, los alumnos de nuevo ingreso tienen dos semanas para probarlo una vez iniciado el curso. Si surgiera algún problema, antes del 24 de septiembre, (antes de pasar el primer cobro) el alumno podrá dar de baja.

6.1.B.) Música y movimiento 1.4.:

En este grupo habrá un mínimo de 4 alumnos y un máximo de 8.

6.2.) Lenguaje musical y danza:

Los alumnos de nuevo ingreso en la danza, una vez iniciado el curso, dispondrán de una semana para probarlo. En caso de que surja algún problema, el alumno podrá darse de baja antes del 18 de septiembre.

6.2.A.) Número mínimo de alumnos de los grupos:

Los grupos de lenguaje musical y danza, deberán estar formados por un mínimo de 8 alumnos y tendrán una sesión de una hora, dos veces por semana. Si esto no es así, se reducirá el tiempo por sesión en función del número de alumnos:

- 8 alumnos o más: 2 veces por semana sesiones de 1 hora.
- 6 – 7 alumnos: 2 veces por semana, sesiones de 45 minutos (con la misma tasa de matrícula).
- 4 – 5 alumnos: una sesión semanal de 60 minutos (con la misma tasa de matrícula).
- No se admitirán grupos de menos de 4 alumnos.

6.2.B.) Número máximo de alumnos por grupo:

El número máximo de alumnos en los grupos de lenguaje musical y danza será de 16. En caso de que se matriculen más alumnos, se dividirán en dos grupos. Si no está previsto el horario del segundo grupo, se realizará una reunión con los padres para informar de los horarios y distribuir los alumnos en ambos grupos. En la distribución, en caso de no alcanzarse un acuerdo, sólo saldrá un grupo de hasta 16 alumnos, tomando como criterio el orden de matriculación.

6.2.C.) Cuando haya dos grupos del mismo curso:

Cuando existan dos grupos de un mismo curso, criterios de inclusión del alumnado oficial en uno u otro grupo:

- Si el alumno no desea permanecer en la Escuela de Música deberá comunicarlo.
- A finales de mayo se enviará a los alumnos de los cursos en los que se prevean dos grupos, una nota con los posibles horarios.

- Esta nota, con la elección que haga el alumno, deberá entregarla en un plazo determinado en la escuela de música (si la nota no contesta, la dirección decidirá el grupo al que se incorpore para compensar al grupo).
- En función de la selección que realicen los alumnos, los grupos pueden salir compensados o no, por lo que:
 - Si los grupos salen compensados, se dejarán así.
 - Si los grupos salen sin compensar:
 - Reunión con los padres y compensación de grupos. En caso de que los padres de un alumno no asistan a la reunión y no lo justifiquen o avisen antes de la reunión, se utilizará para compensar al grupo.
 - En esta reunión se podrán realizar nuevas propuestas de compensación de grupos. Entre estas propuestas prevalecerá la que tenga el criterio pedagógico más adecuado que marcará la dirección.
 - Si no hay acuerdo para compensar a los grupos, se realizará un sorteo teniendo en cuenta el número de expediente del alumno. El número de expediente es el número del alumno que aparece en la hoja de matrícula.
 - Como consecuencia de este sorteo y en la medida de lo posible, en función de la elección del alumno, se irán formando grupos.
- Las listas provisionales de grupos se colocarán en la escuela de música durante la 2. semana de junio.
- De la lista provisional de grupos, si alguien quiere cambiar de grupo: el propio alumno deberá acordar con otro alumno del grupo el cambio y comunicará en la escuela de música en el plazo de una semana.
- Las listas definitivas de grupos se pondrán en la escuela de música dos días antes del inicio de la matriculación. Dentro del plazo de matriculación deberán matricularse como siempre, para ser admitidos.
- Si el alumno que ha realizado la selección del grupo no se matricula en los dos primeros días de matriculación, no se le guardará plaza.

7. Norma: GRUPOS INSTRUMENTALES

El alumno o alumna que desee participar en un grupo de instrumentos de la Escuela de Música podrá hacerlo gratuitamente si está matriculado en otra asignatura. El alumno no matriculado deberá abonar la matrícula correspondiente al curso.

8. Norma: HORARIO CLASE INSTRUMENTO

La hora de clase de instrumento se fijará el día señalado en el calendario de cada curso y se seguirán los siguientes criterios:

- El día que se pongan los horarios, a las 12:00 horas, se realizará un sorteo con los números del orden de matrícula de todos los alumnos.
- El profesor de cada instrumento se reunirá con sus alumnos para fijar los horarios. El orden para la elección de horarios se seguirá desde el número de orden de matrícula resultante en el sorteo:
 - 18:00 horas: 1.4., 2.1, 2.2, 2.3, 2.4., 2.B.J.1., 2.B.J.2. cursos.
 - 19:00 horas: 3.1., 3.2., 3.3., 3.4., 3.5, 3.6., 2.B., 3.B. cursos.
- Si un alumno no ha asistido a la reunión y no lo ha avisado con anterioridad, se le pasará el turno y se le llamará al finalizar la reunión para acordar su horario.
- Si un alumno no puede acudir a esta reunión y antes de la misma ha avisado al profesor, cuando le toca el turno en la reunión se le llamará una sola vez por teléfono para acordar su horario.

9. Norma: ASISTENCIA

Para superar cada nivel, la asistencia mínima de las asignaturas existentes debe ser del 90%.

El alumno o alumna que tenga pocas ganas de estudiar y muchas faltas de asistencia al estudio no tendrá derecho a reserva de plaza para el año siguiente ni a ser alumno o alumna oficial.

10. Norma: ALQUILER DE INSTRUMENTO

El alumno que aprende a tocar el instrumento, no necesita comprar el instrumento, pero puede alquilarlo en la escuela de música. Eso sí, tendrá prioridad el alumno de primer curso.

11. Norma: RESPONSABILIDAD DEL ALUMNO

Una vez finalizada la clase y el alumno salga del aula de la escuela de música, será responsabilidad de los padres.

12. Norma.

Corresponde a la Dirección resolver cualquier error que se produzca en la formalización de la matrícula y no esté previsto en estas normas, así como en el reglamento interno.